

FUNTSEZKO SOZIETATEAK



Gure proiektua gauzatzeko erabiliko ditugun produktuak, hornitzaileek eskainitako produktuak, kalitatezkoak izango dira.

Gure zerbitzuak eta produktuak familia bat sortu nahi duten pertsona edo familientzat bereziki izango dira.

Alde batetik, hornitzaile nagusi bezala “**elikadona**” aukeratu dugu.

Hornitzaile honek **elikadurazko produktuak** eskaintzen dizkigu eta gainera, gure bezeroentzat deskontuak eta eskaintzak izango ditugu.

<http://www.elikadona.eus>

Beste aldetik, eskainiko ditugun beste zerbitzuak hornitzaile desberdinetatik jasoko ditugu.

Gurasoei **gomendatuko dizkiegun jostailuak** Euskal Herriko enpresa batetik izango dira gehienak “**euskotoy**” , hau da, egokiak iruditzen zaizkigu saltzen dituzten produktuak haurraren garapenerako. Eskaintzen dizkigun jostailuak, elementu naturalez eginda daude eta prezioak ekonomikoak izango dira familia guztientzat.



<http://www.euskotoy.eus/>

Alde asistentzialari dagokionez, aplikazioan dauden atal ezberdinetan aditu espezializatuak egongo dira beraiei dagozkien profesioaren inguruko gomendioak ematen.

Osasun mentalaren aldetik, psikologoak eta medikuak (pediatra, haurrentzat) izango ditugu eta osasun fisikoaren aldetik, nutrizionista eta gorputz hezkuntzako aditua.

Aditu hauek, lan-poltsatik aukeratutako profesionalak izango dira, baita gurekin kontaktuan jarri eta bertan lan egiteko prest daudenak.

Lan postuari dagokionez, bertako langileek, minimo batzuk bete beharko dituzte lan egiteko. Elkarrizketa bat eginez, minimo hauek dituen ziurtatuko ditugu.

Hauek izango dira irizpideak:

- Ingelesa, erdera eta euskera jakin beharko ditu. (Euskera jakitea ez da beharrezkoa izango)

- Lan munduan esperientzia duenak, aukera gehiago izango ditu bertan lan egiteko.
- Lanbidearen titulazioaz gain, pertsonekin elkarreraginean egon behar denez, esku-hartze profesionalarekin batera, enpatia edukitzea komeni da.

Azkenik, arriskuak murrizteko, beste hornitzaile batzuekin harremanetan jarri gara eta orain ditugun hornitzaileek porrot egiten badute, beraien zerbitzuak izango ditugu.